Talde demografiko horiek (gazteak, emakumeak, 45 urtetik gorakoak eta ezinduak) lana bilatzea bultzatzeko garatu diren politika ekonomikoak ez dira antza denez nahikoak horien langabezia-tasak beste kolektiboen langabezia-tasen modura murrizteko. Azterlan honek bilatzen duena da zailtasun gehien dituzten talde horiek lan-merkatuan sartzea ahalbidetuko duten politikak diseinatzeko gakoak ematea, kolektibo horiei lana bilatzea horren zaila zergatik egiten zaien aztertuz.

Azterlanak bi zati ditu. Lehenengo zatian lehenengo enplegua du xede, eta bertan lehenengo lana bilatzeko aukerak eta lehenengo lan horren ezaugarriak aztertzen dira (batez ere lan hori gazteek egin dituzten ikasketa-motetara eta -mailetara doitzen den). Bigarren zatian, jadanik lehen lan egin duten langabetuen taldea aztertzen da. Bertan langabezian dagoen pertsona-talde horrek lana bilatzeko dituen aukerak aztertzen dira. Bi kasuetan, lan bat bilatzen laguntzen duten faktore garrantzitsuenak aztertzeaz gain, lana azkar bilatzen laguntzen dutenak ere aztertzen dira.

Lortu diren emaitzen artean azpimarragarrienak dira gazteentzat eskarmenturik ez izatea lana bilatzeko oztoporik handienetako bat dela, nahiz eta gazte horien heziketa-maila geroz eta handiagoa izan. Hala ere, askotan ikasketen tipologia ez da

egokiena lan-merkatuaren beharretarako. Hori horrela, askotan ez datoz bat ikasketa akademikoak enplegu-beharrekin. Azterlan honetan lortu ditugun amaitzek iradokitzen dute gazteei eskaintzen diren lan-aukeren berri ematea, eta heziketaren eta lan-merkatuaren arteko loturei buruzko orientazio profesional hobea ematea izango liratekeela enplegatzaileen eta lehenengo lana bilatzen duten horien arteko egokitzapen kuantitatibo nahiz kualitatiboa ahalbidetzeko bide egokienak, langabezia-aldiak nahiz horien iraupena murriztuz.

44 urtetik gorako pertsonen kasuan, zailtasun nagusia jasotako prestakuntzaren eta egungo lan-merkatuak eskatzen duen prestakuntza-motaren artean dagoen desfasea izan ohi da.

Baina bai gazteen taldean eta baita 44 urtetik gorako pertsonen taldean ere, emakumeak dira lana bilatzeko zailtasun handienak dituztenak. Kasu honetan azpimarratu behar dena da ez hainbeste ikasketa-mailen garrantzia, normalean gizonena baino altuagoa izaten baita, egiten diren ikasketa-motena baizik: emakumeak nabarmen kontzentratzen dira sortzen diren lanpostu hutsak erraz betetzen diren sektoreetan, beste zenbait sektoreetan, zientzia teknikoetan adibidez, lana bilatzeko askoz ere aukera handiagoak dauden bitartean.



## EGITEN ARI DIREN AZTERLANAK

### Gizarte babesa EB eta EAEko gizarte politikako funtsezko elementu gisa. Langabezia eta gizarte-bazterkeria funtzioen kasu berezia

**EGABeko arduradun teknikoak:** Leire Ozerin, Arantza Unzurrunzaga

**Helburua:** EAEn dagoen «gizarte babesaren» maila eta aplikatzen joan diren gizarte politikak aztertzea, eta horiek Espainiako Estatuan eta EB osoan daudenekin alderatzea.

Batzorde honek, Gizarte Politikaren zentzu zabaleko ikuspegia onartzen badu ere, lehenengo azterlan hau EAEko eta Europa Komunitario gisa ulertzen den EB-15eko «gizarte babesaren» eremura bakarrik mugatu nahi izan du, eta, bereziki, langabezia eta gizarte bazterkeria funtzioetara.

**Edukia:**

—I. Kapitulua: Europako gizarte-eredu hipotetikoa.
—II. Kapitulua: Gizarte-politika EBn (1957-2004).
—III. Kapitulua: EB-15eko gizarte-politikaren jardunbide egokiak.
—IV. Kapitulua: Gizarte-babesa EAEko gizarte-politikako ardatz gisa.
—V. Kapitulua: Laburpena eta ondorioak.

**Aholkularitza-enpresa laguntzailea:** DATLAN.
**Kontratuaren data:** 2002-02-11.

**Prezioa:** 85.000 € (BEZ barne).

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Lan-batzordea.

**Bilerak:** Batzordeak Azterlanari buruzko 7 lan-bilera egin zituen 2005. urtean; lehenengoa apirilaren 20an izan zen, eta azkena azaroren 30ean.

**Garapen iraunkorra, ingurumen alorreko politika publikoen erronka. EAE-n ekonomia, gizarte eta ingurumen alderdiak batuko dituen garapen iraunkorreko estrategia jorratzeko ildoak definitzeko azterlan konparatua.**

**EGABeko arduradun teknikoa:** Arantza Lopez de Munain Zulueta

**Helburua:** Azterlanaren xedea gizarte eta ekonomi iraunkortasunaz gain ingurumen-iraunkortasuna bilatzen duten herri politikek gure inguruan aurrera egiten duten norabideari buruzko ahalik eta ikusmolde zehatzena lortzea da, bai Europar Batasuneko nazioz gaindiko mailan bai, «jardunbide egokiei» begira, nazio eta erregio maila erkatuan. Hartara, haien bitartez ondorio egokiak atera ahal dira EAEn ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik Garapen Iraunkorrerako Estrategiari heltzeko moduari buruz. Azterlanaren arabera, sakontasunez aztertu behar da Europar Batasuna eusteko moduan garatzeko Estrategia, horren elementu aplikazio guztietan; eta ekonomi, gizarte eta ingurumen aldagaiak sartu dituzten eta gure gizarte-ekonomiazko inguruko erregioetan eta herrietan diseinatu eta abiarazi diren Garapen Iraunkorrerako Estrategiak. Gauzak horrela, gure Autonomia Erkidegoan buruturiko ekimenak ebaluatu eta EAEko Garapen Iraunkorrerako etorkizuneko Estrategiaren helburu eta konpromiso ekonomikoak, sozialak eta ingurumenari buruzkoak barnean hartzen dituen plangintzarako irizpide-proposamena zehaztu beharra dago.

**Edukia:**

- Garapen iraunkorra: Kontzeptuaren sorrera eta bilakaera.
- Garapen Iraunkorrerako Europako Estrategia: Bertako oinarriak, prozedurak eta tresnak eta programa- eta sektore-garapenak xehetasunez aztertzea.
- Gure gizarte-ekonomiazko inguruko erregioetan eta herrietan diseinatu eta abiarazi diren Garapen Iraunkorrerako Estrategiak aztertzea. Zehazki, Suediako, Danimarkako, Erresuma Batuko, Holandako, Nord-Rhein Westfallengo, Valoniako, Kataluniako eta Eskoziako esperientziak aztertu dira.
- Aurretiko azterketa erkatuaren testuinguruan EAEko Garapen Iraunkorrerako Estrategia ebaluatzea, bereziki ingurumen aldagaia kontutan harturik.
- Gizartea, ekonomia eta ingurumena barnean hartzen dituen EAEko Garapen Iraunkorrerako etorkizuneko Estrategia egiteko arauak zehaztu eta gomendatzea.

**Aholkularitza-enpresa laguntzaileak:** LKS Consulting eta Wuppertal Institute for Climate, Environment and Energy.

**Kontratuaren data eta zenbatekoa:** 2003ko urriak 1, 161.750 €.

Azterlana ia amaituta dago, baina lan-batzordean aztertu aurretik berrikusi egin behar da. Azterlana egin den bitartean, lanen ibilerari buruzko gogoeta eta balorazioa egiteko bilerak egin dira. Bilerotan parte hartu dute EGABeko erakundeen ordezkariek, haren Batzorde Iraunkorrak izendatuak. 2005ean 3 bilera egin ziren: urtarrilaren 13an, uztailaren 21ean eta azaroaren 21ean.

# III
## Erakunde-Jarduera

# Erakunde-Jarduera

2005. urtean Euskal EGABen lehendakaritza eta zuzendaritza nagusia berritu da, eta erakundeko arduradun berria den Antxon Lafont Mendizabal jauna aurkezteko hainbat erakunde bisita antolatu dira. Urte horretan autonomia erkidegoko nahiz Europako hainbat erakunde kideekiko bilerak ere egin dira.

Garrantzitsuenak bakarrik azpimarratuko ditugu:

## ERAKUNDEEN BISITAK ETA BILERAK

- **05/03/23, Gasteiz:**

**Joseba Azkarraga.** Lana, Justizia eta Gizarte Segurantzako sailburua. Antxon Lafont EGABeko lehendakariaren protokolo-bisita; Euskal EGABeko lehendakari izendatu ondorengo lehenengo topaketa ofiziala. Aurkezpen-bisita, EGABek Eusko Jaurlaritzarekin mantentzen dituen harremanen markoan.



*Joseba Azkarraga eta Antxon Lafont Lakuan izandako bileran*

- **05/07/22, Gasteiz:**
Erakunde-topaketa **Eusko Jaurlaritzako lehendakariarekin.**



*Eusko Jaurlaritzako lehendakariak ongietorria eman dio Euskal EGABeko lehendakariari*



- **05/08/31, Gasteiz:**
**Esther Larrañaga,** Ingurumen eta Lurralde Antolaketako sailburua.
Euskal EGABen eta Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Sailaren arteko erakunde-topaketa. Bertan izan zen Antxon Lafont, Euskal EGABeko lehendakaria.

- **04/09/16, Bilbo:**
**FSM Munduko Federazio Sindikala**. FSM Munduko Federazio Sindikaleko Idazkari Nagusiaren Alboko den Valentin Pacho perutarra Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordeko lehendakari den Antxon Lafontekin bildu zen. Valentin Pachorekin batera izan ziren LABeko Idazkari Nagusi den Rafa Diez Usabiaga, Idazkari Nagusiaren Albokoa den Ainhoa Etxaide, Nazioarteko Harremanetarako idazkari den Jesus Mari Gete eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordean LAB sindikatuaren ordezkari den Rafa Izquierdo jaun-andreak.

- **05/10/13, Gasteiz:**
**Joseba Azkarraga. Lana,** Justizia eta Gizarte Segurantzako sailburua. Laneko erakunde-bisita.



*Esther Larrañaga eta Antxon Lafont Lakuan izan zuten bileran*



*Lafont jaunak ongietorria ematen dio FSMko buruzagia da Valentin Pachori*

- **05/11/10, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.**

Erakunde-topaketa Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, **Idoia Zenarruzabeitia** lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuarekin eta Joseba Andoni Alcalde Sailburuordetzako Idazkari Nagusiarekin. Bertan izan zen Euskadiko EGABeko lehendakari den Antxon Lafont.






## AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO EKONOMIA ETA GIZARTE BATZORDEEKIN

- **Autonomia Erkidegoen urteko I. topaketa, Bartzelona, 2005eko apirilak 21 eta 22**

Honako EGAB hauetako presidenteak eta idazkari nagusiak bertaratu ziren: Andaluziako EGABekoak, Aragoiko EGABekoak, Asturiasko EGABekoak, Balearretako EGABekoak, Kantabriako EGABekoak, Kanarietako EGABekoak, Kataluniako EGABekoak, Gaztela-Mantxako EGABekoak, Gaztela eta Leongo EGABekoak, Ceutako EGABekoak, Extremadurako EGABekoak, Galiziako EGABekoak, Errioxako EGABekoak, Madrilgo EGABekoak, Murtziako EGABekoak, Nafarroako EGABekoak, Euskadiko EGABekoak, Valentziako EGABekoak eta Espainiako EGABekoak.

EGAB batzordeek azken hilabeteetan egindako jarduketen balorazioa eta etorkizunerako helburuak bateratzea izan ziren lehendakariek eta idazkari nagusiek landu zituzten gai nagusiak.

Bildutakoek *ekonomia espainiarraren lehiakortasuna eta enpresa anonimo europarraren estatutua* izeneko hitzaldi edo mahai-inguruetan parte hartzeko aukera izan zuten.

- **Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeetako Dokumentazioari eta Komunikazioari buruzko III. Jardunaldiak, Santiago, 2005eko maiatzaren 26 eta 27**

Kanarietako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak maiatzaren 20an eta 21ean bere egoitzan EGABetako Dokumentazioari eta Komunikazioari buruzko II. Jardunaldiak antolatu zituen. Jardunaldi hauetan honako Autonomi Batzordeon ordezkariek hartu zuten parte: Andaluziako EGAB, Aragoiko EGAB, Asturiasko EGAB, Kanarietako EGAB, Kantabriako EGAB, Gaztela eta Leongo EGAB, Gaztela-Mantxako EGAB, Kataluniako EGAB, Valentziako EGAB, Extremadurako EGAB, Galiziako EGAB, Balearretako EGAB, Euskadiko EGAB, Errioxako EGAB eta Espainiako EGABenek. Zenbait gai aztertu ziren. Beraien artean honakook nabarmendu ziren: informazio eta dokumentazio digitaleko zerbitzuak diseinatzea eta garatzea software librearekin eta Interneteko Baliabide-direktorioaren Proiektua aztertzea eta azaltzea. Proiektu horretan lanean ari dira, batera, Autonomia Erkidegoetako EGABetako dokumentazio eta informazio sailak.

- **Autonomia Erkidegoetako EGABen urteko II. topaketa, Bartzelona, 2005eko urriak 20-21**

Autonomia Erkidegoetako EGAB guztien ordezkariak bertan izan ziren. Urteko I. topaketan aztertutako gaiak errepasatzeaz gain, EGABetako teknikarien hurrengo bileretan kontuan hartu beharreko irizpideak ezarri ziren.

Kataluniako EGABek, topaketa honen kariaz, bi bilkura monografiko antolatu zituen: lehenengoa, «Enpresen Erantzukizun Sozialari» buruzkoa; eta bigarrena, «Autonomia Erkidegoetako finantzazio-sistema berriari» buruzkoa.



## MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA EREMU ATLANTIKOKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEEKIN ETA BESTE ERAKUNDEEKIN

### BI ALDEKO LANKIDETZA AKITANIAKO CESR-REKIN

Euskadiko EGABek bi aldeko lankidetza harremanak ditu Akitaniako Conseil Economique et Social Régional-ekin. Horrela biek etengabeko elkarrizketan dihardute eta ikuspegi beretik aztertzen dituzte EAEri eta Akitaniari ardura dieten gaiak. Lehenengo Lan Batzordea sortu da. Euskadiko EGABen eta Akitaniako CESRko Eskualdeen Arteko Lankidetzarako Taldearen ordezkariek osatutako batzorde hori Akitanian eta EAEn ingurune hurbileko turismoa sustatzeko aukerak aztertzen ari da; turismo mota horrek iraunkortasun-irizpideak errespetatuko ditu eta bateratu egingo ditu eskakizun ekonomikoak, gizarte arlokoak eta ingurumenaren arlokoak. Batzordea, gainera, beste merkatu batzuei begira EAEk eta Akitaniak baterako turismo-eskaintza egiteko aukerak aztertzen ari da.

Lankidetza-eremu horren barruan, Euskadiko EGABek parte hartu zuen Akitaniako CESRk Garraio Azpiegiturei buruz antolatu zuen topaketan; bertan, Batzorde Europarreko Garraioen Zuzendari Nagusi den François Lamoureux jauna izan zen gonbidatu nagusia. Topaketaren ardatza errepide bidezko garraioak Pirinioetako iraganbide atlantikoan duen egoera, horrek eragindako eskualdeetan sortzen duen kutsadura eta kongestio arazoa eta Europar Batasunetik sustatu beharreko irtenbideak izan ziren.

## ARKU ATLANTIKOKO SAREA. RTA/ATN

Euskadiko EGAB ekonomia eta gizarte arazoetarako batzordeen eta Eremu Atlantikoko eskualdeetako antzeko erakundeen Plataformako kidea da. Arku Atlantikoko Sarea (RTA) deritzo plataforma horri. Beraren helburua da eskualdeen arteko lankidetzarako proiektuak eta politikak proposatzea, eskualde atlantikoen lehiakortasuna nahiz gizarte- eta lurralde-batasuna sendotuko dituztenak; gainera, eremu atlantikoko eskualde guztiei ardura dieten gaiak aztertzen ditu, azterketen emaitzak aditzera ematen ditu eta erabakitzeko ahalmena duten erakundeei aurkezten dizkie, batez ere Europako Batasunari. Honako hauek ere Arku Atlantikoko Sareko kideak dira: Kantabriako, Galiziako, Kanarietako, Ceuta, Akitania, Poitou-Charentes, Bretainia, Pays de Loire,





*RTAko presidentea Rafael Puntonet presidente ordeekin batera*

Limousin eta Centreko ekonomi eta gizarte arazoetarako batzordeak, Galeseko Foro Ekonomikoak, Lisboako Eskualdeko Enpresa Elkartea, AERLIS, Instituto de Soldadura e Qualidade (ISQ), eta Algarveko Sindikatuen Batasuna (USALGARVE/CGTP-IN).

Arku Atlantikoko Sarea 2003-2006 urteetan EGEFen kofinantzaketa jasotzen ari da, Europako Batasuneko «INTERREG IIIB Eremu Atlantikoa» ekimenaren bitartez.

Nahiz eta delako aldi horretan EEGABen berrikuntza gertatu eta erakundearen burutza Antxon Lafontek hartu, kargua utzi zuen batzordeburuak, Rafael Puntonet jaunak, RTAren lehendakaritzan jarraitu zuen. Euskadiko EGABek, RTAko lehendakaritzan egon den urte honetan eremu atlantikoko beste erakundeek antolatutako ekitaldi garrantzitsuetan parte hartzeko aukera izan du, Arku Atlantikoko Sareko ordezkari gisa. Hauek dira garrantzitsuenak:

- **Europako Batasunaren eta Europako Eskualdeetako Elkarteen arteko Elkarrizketa Egituratuko Bilera. Brusela, 2005eko otsailak 24.**

RTAk Europako Batzordeko lehendakari den Jose Manuel Barroso jaunarekiko elkarrizketa egituratuaren bigarren bileran parte hartzeko gonbita jaso zuen. Bilera Bruselako Eskualdeen Batzordearen egoitzan izan zen. Elkarrizketa Egituratua Europako Batzordearen eta lurralde-kolektibitateen elkarteen arteko komunikaziorako mekanismo bat da, Europako Gobernuaren Liburu Zuritik abiatuta ezarritakoa. Bere helburua da Europako Batasuneko jarraibide politikoak hobeto ulertaraztea, eta tokiko eta eskualdeko elkarteen ikuspegiak Europako erabakietan txertatzea.




*RTAko presidenteak newsletter-a eskaini zion Europako Batzordeko lehendakariari*

- **Eskualdeen eta Hirien Europako goi-bilera, Wroclaw, maiatzak 19-20**

Rafael Puntonetek, RTAko lehendakari gisa, Eskualdeen Batzordearen gonbita jaso zuen, Poloniako Wroclaw hirian egin zen Eskualdeen eta Hirien Europako Goi-bileran parte hartzeko. Bertan beste 300 ordezkarik parte hartu zuten; horien artean eskualde desberdinetako lehendakariak, hirietako alkateak, Eskualde Legebiltzarre-

tako lehendakariak eta izaera europarreko eskualde-elkarteetako ordezkariak nahiz erakunde europarretako ordezkariak. Goi-bilerako eztabaiden ardatza deszentralizazioak kohesioarentzat, lehiakortasunarentzat eta demokraziarentzat ekarriko lituzkeen onurak izan ziren.

- **Eremu Atlantikoaren Garapenerako Eskemaren Azken Konferentzia, Oporto, ekainak 27.**

Eremu Atlantikoa Garatzeko Eskemaren Azterlana (SDEA) Arku Atlantikoaren Batzordeko kide diren 19 eskualde atlantikoren arteko proiektu gisa prestatu da, INTERREG IIIB «Eremu Atlantikoa» izenekoaren finantzazioarekin. Azterlana Eremu Atlantikoaren ebaluazio estrategiko batetatik abiatzen da; bertan eskualde atlantikoen indar-guneak eta ahulguneak identifikatzen eta ebaluatzen dira, eremu atlantikoa garatzeko proposamen estrategikoak prestatu ahal izateko. Nazioaz gaindiko eskualde arteko lankidetzarako proposamenak ere egiten dira. Helburua da Espazio Europarraren garapen polizentriko eta orekatuko eredu baten eraikuntzan Espazio Atlantikoa txertatzen laguntzea, Espazio Komunitarioa Garatzeko Eskemari (SDEC) jarraiki.

Azterlana ekainaren 27an aurkeztu zen, Porton antolatu zen konferentzi batean.

Euskadiko EGAB egin da RTAren lehendakaritzan eta, beraz, RTAren ordezkari izan da, baita ere, proiektuaren osoko bilkuretan (Sines, otsailak 18).



- **RTAren Lanak Aurkezteko Konferentzia, Brusela, 2005eko irailak 21**



RTAk egin duen ekitaldi publiko garrantzitsuena RTAk 2003-2005 biurtekoan egindako lanak aurkezteko antolatu zuen konferentzia izan da; Eskualdeen Batzordearen egoitzan izan zen, 2005eko irailaren 21ean.

Ekitaldia RTAko lehendakari Rafael Puntoneten lehendakaritzapean ospatu zen, eta bertan izan ziren Eskualdeen Batzordeko Idazkari Nagusia, Gerhard Stahl, Lan-taldeetako lehendakariak eta aurkeztu ziren lanak prestatzen esku hartu zuten txostengileak. Aurkeztu ziren lanak ondorengo hauek izan ziren: Merkantzien Itsas Trafikoaren Segurtasunari buruzko behin betiko txosten bat eta merkantzien garraioan eman daitekeen intermodalitateari buruzko behin-behineko bi txosten, bereziki por-

tu, hinterland eta merkantzien itsas garraioaren ingurukoak. Gainera, teknologiaren transferentziari eta berrikuntzari buruzko beste txosten bat ere aurkeztu zen. EEGAB ekintza horretara joan zen eta bere eskuordea Antxon Lafont batzordeburua izan zen. Bertan izan ziren RTAko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluetako beste eskuorde batzuk ere, eta erregioetako bestelako agintariak.



## RTAren bilerak 2005ean

RTAko erabaki-organo gorenak sei hilabetez behin bildu dira, bai Batzorde Betearazlea, Bureau-a, eta baita Osoko Bilkura eta Orientazio Batzordea:

**Bordele, 2005eko apirilak 15**
*RTAko Bureau-aren bilera*
RTAko lehendakariak eta lehendakariordeak osatzen dute organo hori. Lan-taldeetako Lehendakariek prestatutako txostenen aurkezpena egin zen. Txosten horiek azterketa-prozesuaren eta barne-onespenaren mende jartzeko prest daude. Hori da RTAko Osoko Bilkurak azken onespena eman aurretiko urratsa. Orientazio Batzordean eztabaidatu beharreko gaiak prestatu ziren. Txostenei dagokien izapideaz gain, horien komunikazio-programa prestatu zen, eta RTAren egoera finantzarioa aztertu zen.






**Bordele, 2005eko maiatzak 31**

*Orientazio Batzordearen bilera*

RTAk erabakiak hartzeko eta bere estrategiak bideratzeko duen organo nagusia RTAko lan-taldeek prestatutako txostenei buruzko iritzia igortzeko bildu zen. Osorik onetsi zen merkantzien itsas trafikoaren segurtasunari buruzko txosten bat. Portuei eta Hinterlandei buruzko txostena eta merkantzien garraioan ematen den intermodalitateari buruzko txostena, nahiz Teknologiaren Transferentziari eta Berrikuntzari buruzko beste bat, etapako txosten gisa onetsi ziren, eta horien osagarriak prestatzea erabaki zen. Horrela, hurrengo aldirako gaiei buruzko erabakia ordura arte landutako gaiekin jarraitzea izan zen. Gainera, RTAko osoko organoak egindako lanen komunikazio-plana onetsi zuen, baita Bruselan txostenak aurkezteko konferentzia bat antolatzea ere. Adierazi diren gai horiei buruzko EEGABen jarrera eta iritziak batzordeburua den Antxon Lafontek azaldu eta defendatu zituen.

**Bilbo, 2005eko uztailak 8**

*RTA-ko Bureau-aren bilera*

Bureau-ak RTAren lanen bigarren fasea jaulki zuen, horiek prestatzeaz arduratuko ziren Lan-taldeen osaera onetsiz, Lehendakari eta Lehendakariordeak izendatuz, eta horiek gauzatu beharreko lan-plana zehaztuz. Era berean, egoera finantzarioa aztertu zen, eta hurrengo ekitaldirako aurrekontu-proiektua prestatu zen. RTAren etor-

kizunari buruzko hausnarketa abiarazi zen, bere ibilbidearen lehenengo hirurtekoa amaitzen zela-eta, eta horri buruzko hausnarketa kolektibo bat abiaraztea komeni zela erabaki zen. Gainera, hausnarketa hori bultzatuko duen lan-talde bat sortzeko beharra ikusi zen.

**Brusela, 2005eko irailak 20**

*Orientazio Batzordearen bilera*

RTAko osoko organoak lehendakari berria izendatu zuen: Roger JONES OBE jauna, Galeseko Foro Ekonomikoetakoa, Euskadiko EGABeko Rafael PUNTONET DEL RIOren lekua hartuz hurrengo urterako. Era berean, Lehendakariorde eta Bureau-eko kide berriak ere izendatu ziren.

Sarearen lan berriei dagokienez, Lan-taldeetako Lehendakariek abiarazitako lanen berri eman zioten RTAko erabakitzeko eta orientazio estrategikorako organo gorenari eta honek lan-plan horiek berretsi zituen. Hurrengo ekitaldirako aurrekontua onetsi zen, eta RTAk 2006ko udaren ondoren izango duen etorkizunari buruzko eztabaida ireki zen.

EEGABek bilera horretan esku hartu zuen eta bertan izan zen batzordeburua den Antxon Lafont.





2005eko maiatzean, RTAk 2003an abiarazitako lanak amaituta zituen jada, eta 2005eko irailetik 2006ko apirilera bitarteko lan-plan berri bat abiarazi zuen.

Aldi horietan zehar landutako gaiak ondorengo hauen ingurukoak izan dira:

—Intermodalitatea merkantzien garraioan, itsas garraioa, portu eta hinterlandak eta Eremu Atlantikoko kabotajea azpimarratuz.
—Segurtasuna merkantzien itsas garraioan.
—Ikerketa, berrikuntza eta teknologiaren transferentzia Eremu Atlantikoko eskualdeetan.

Merkantzien itsas trafikoaren segurtasuna 2005eko maiatzaren 31n onetsi zen behin betiko txosten baten xede izan da. Intermodalitateari eta berrikuntza eta teknologiaren transferentziari buruzko txostenak osatzen ari dira, eta 2006ko otsailean amaituko dira. Hain zuzen ere:

—Intermodalitatea merkantzien garraioan: portuak eta hinterland, itsas garraioa eta short sea shipping, ondorioen eta gomendioen kapitulua sakontzeko.
—Teknologiaren transferentzia eta berrikuntza: arku atlantikoko eskualdeen lankidetzarako erronkak, bi gai zehatz sakontzera zuzendua. Gai horiek Eremu Atlantikoko enpresa txiki eta ertainek berrikuntzara duten irisgarritasunarekin eta ikerlari gazteek Eremu Atlantikoan duten mugikortasunarekin daude lotuta. Horren ondorioz bi osagarri lortu dira, eta Euskadiko EGAB izan da azken horretan funtzio txostengilea izan duena.



Eskualde arteko **bi lan-talde** gogoz aritu dira lanean, azterlan horiek prestatzea ahalbidetzeko. Gizarte-erakunde bakoitzaren ordezkariez gainera, aztergaiarekin zerikusia duten arloetako hainbat adituk lagundu dute lan horietan; agerraldietan parte hartu dute eta euren ezagutza eta esperientzia eskaini dizkiote lan-taldeari.

- *«Irisgarritasuna» izeneko lan-taldea*. 2003ko irailetik 2005eko maiatzera.
  Hiru bilera egin ditu 2005ean: Cardiffen, Las Palmasen eta Bordelen.
  Hauek dira Euskadiko EGABen ordezkariak lan-talde horretan:
  Titularra: Rafael Puntonet del Río, lehendakaria.
  Ordezkoa: Arantza Lopez de Munain Zulueta, RTA proiektuaren koordinatzailea.
  Aditua: José María Uranga Ayestarán, IV. taldeko aholkularia.

- *«Irisgarritasuna» izeneko lan-taldea*. 2005eko irailetik 2006ko otsailera.
  Hiru bilera egin ditu: Bordelen, Orleansen eta Bilbon.
  Hauek dira Euskadiko EGABen ordezkariak lantalde horretan:
  José María Uranga Ayestarán, IV. taldeko aholkularia.
  Arantza Lopez de Munain Zulueta, RTA proiektuaren koordinatzailea.



*«Irisgarritasuna» izeneko lan- taldearen bileran Uniporteko zuzendaria den Inmaculada Ugartetxek parte hartu zuen*



- *«Ikerketa, Berrikuntza eta Teknologia-transferentzia» izeneko lantaldea*. 2003ko irailetik 2005eko maiatzera.
  Bilera bat egin du 2005ean, Orleansen.
  Hauek dira Euskadiko EGABen ordezkariak lan-talde horretan:
  Titularra: Rafael Puntonet del Río, lehendakaria.
  Ordezkoa: Arantza Lopez de Munain Zulueta, RTA proiektuaren koordinatzailea.
  Aditua: Ignacio Barrenechea González, IV. Taldeko aholkularia.
  Lanen garapen teknikorako laguntzailea: Leire Ozerin, Azterlan eta Proiektuen Arduraduna.

- *«Ikerketa, Berrikuntza eta Teknologia-transferentzia» izeneko lantaldea*. 2005eko irailetik 2006ko otsailera.
  Bi bilera egin zituen 2005ean, Bordelen eta Lisboan.
  Hauek dira Euskadiko EGABen ordezkariak lan-talde horretan:
  Ignacio Barrenechea González, IV. Taldeko aholkularia.
  Leire Ozerin, Azterlan eta Proiektuen Arduraduna, eta ikerlari gazteen Eremu Atlantikoan duten mugikortasunari buruzko osagarriaren txostengilea.

## EUROPAKO ITSASALDEKO ESKUALDE PERIFERIKOEN KONFERENTZIA ETA ARKU ATLANTIKOKO BATZORDEA

Europako itsasaldeko 157 eskualde biltzen dituen elkartea da. Europako Batasunaren garapen orekatua sustatzen du, eskualde horiek batera dituzten aktiboen balorizazioa dela bide; Europako batasun prozesuan eskualdeek parte har dezaten arduratzen da, eta Europako agintariei gogora ekartzen dizkie itsasaldeko eta periferiako eskualdeen berezitasunak eta beharrizanak, Europako batasunaren testuinguruan. Sei batzorde geografikotan antolatuta dago eta horietariko bat Arku Atlantikoko Batzordea da. Atxikitako eskualdeetako agintarien ordezkariak kide formalak dira; eskualdeetako ekonomia eta gizarte arazoetarako batzordeek ere parte hartu ohi dute haren batzarretan.

Euskadiko EGABek ekainaren 28an eta 29an Porton egin zen *Arku Atlantikoko Batzordearen Batzar Orokorrean* parte hartu zuen.



## *SHORT SEA SHIPPING* EREMU ATLANTIKOAN

Europan eta EAEn, salgaietarako garraiobideen arteko desoreka handia dago. Errepidea da jaun eta jabe; horren ondorioz bide-sarea gainezka dago eta ingurumenaren gaineko eragina larria da. Egoera horrek bultzatuta, Euskadiko EGABek Eremu Atlantikoan short sea shipping-a sustatzeko proiektu batean parte hartu du, Eremu Atlantikoko hainbat gobernu eta porturekin batera. Arazoak bereziki larriak dira gure autonomi erkidegoan, Pirinioetako pasabide atlantikoan leku estrategikoa duelako, barneko trafiko handia duelako eta joan-etorri asko izaten direlako kontinenteko iparraldetik hegoaldera eta penintsulako ekialdetik mendebaldera; hurrengo urteetan joan-etorri horiek ugaritu egingo dira eta ageri-agerikoa da ordezko garraiobideak sustatzeko premia. Proiektuaren azken helburua hauxe da: eskualde atlantikoak itsasertzean daudenez eta portuak badituztenez, gaur egun errepidez garraiatzen diren salgaietako batzuk itsasoz garraiatzea.

Eusko Jaurlaritza da proiektuko burua eta aitzindaria, eta Europako INTERREG IIIB programak proiektua finantzatzen lagundu du. Horrela bada, Euskadiko EGABek, Akitaniako eta Poitou-Charentesko gobernuak, Gloucestershire County Council eta Bilbo, Pasaia, Gijon, Vigo eta Leixoesko portuak lankide dituela, sakonean aztertu du ibilbide laburreko itsas garraioak zer nolako baldintzak bete behar lituzkeen errepidearekin lehiatu ahal izateko salgaien garraioan, eta horrela errepideko trafikoak itsasora aldatu ahal izateko. Halaber, Short Sea Shipping delakoa gutxiago kutsatzen duen garraiobide gisa sustatzeko neurri osagarriak hartzeko asmoa dago.

2004an abiarazi zen proiektua 2005eko lehenengo hiruhilekoan amaitu zen, eta Zuzendaritza Batzordearen azken bilera, proiektuan kide ziren erakunde guztietako ordezkarien parte-hartzearekin, urtarrilaren 19an egin zen, Gijoneko Portu Agintaritzaren egoitzan. Aurkezpen publiko ofiziala Bilbon egin zen, martxoaren 2ean.

Arku Atlantikoko Hirien Konferentziak otsailaren 25ean Itsas Autobideei eta Short Sea Shipping delakoari buruz Vigon egin zen mintegian aurkeztu zuen azterlana baita ere, eta martxoaren 9an eta 10ean Bilbon egin zen Short Sea 2005 Kongresuan nahiz Arku Atlantikoko Batzordearen ekitaldi eta instantzia desberdinetan ere aurkeztu zen.

# IV

## Baliabide materialen eta giza baliabideen kudeaketa

# Baliabide materialen eta giza baliabideen kudeaketa

## 2005EKO AURREKONTUA

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2005. urtean 1.826.641,79 euroko aurrekontua izan du. Kopuru horretatik 1.624.166,00 euro EAEko Aurrekontu Orokorretatik finantzatu dira; 19.728 euro EGEFen diru-laguntzetatik, EGABek INTERREG IIIB «EREMU ATLANTIKOA» proiektuetan parte hartu baitu; 160.747,79 euro, aurreko ekitaldiko gerakinen kargura, eta 22.000,00 euro, finantza-sarreren kargura.

Gastu eta Sarreren 2005eko Aurrekontu Arrunta kapitulu nagusi hauetan banatu da:

| | AURREKONTUA | BETE DENA | MAILA |
|---|---|---|---|
| **2005eko GASTUAK** | **1.826.641,79** | **1.462.527,16** | **80,07%** |
| I. Kapitulua- Langileen gastuak | 827.146,53 | 696.803,52 | 84,24% |
| II. Kapitulua- Funtsionamendu gastuak | 670.840,26 | 509.287,11 | 75,92% |
| III. Kapitulua- Finantza gastuak | 60,00 | 0,00 | 0,00% |
| IV. Kapitulua- Transf. eta d.-lag. Gastu arrunta. Kideen transferentziak | 296.595,00 | 236.544,46 | 79,75% |
| Capítulo VI.- Inbertsioak | 32.000,00 | 19.892,07 | 62,16% |
| **2005eko DIRU-SARRERAK** | **1.826.641,79** | **1.462.527,16** | **80,07%** |
| IV. Kapitulua- Transf. eta d.-lag. Gastu arrunta | 1.643.894,00 | 1.650.590,44 | 100,41% |
| Eusko Jaurlaritza | 1.624.166,00 | 1.624.166,00 | 100,00% |
| EGEF | 19.728,00 | 26.424,44 | 133,94% |
| V. Kapitulua- Ondare sarrerak. Diru-sarrera finantzarioak | 22.000,00 | 21.168,41 | 96,22% |
| Aurreko ekitaldietako gerakinak | 160.747,79 | –209.231,69 | –130,16% |

Gastuen likidazioen bilakaera historikoa ikusirik, esan daiteke erakundeak aurrera egin duela eta sendotu egin dela, eta beraren aholkularitza-eginkizunak ere bide beretik joan direla:






## EGABEKO LANGILEAK

Hamaika lagun ari dira Euskadiko EGABen zerbitzuan, zenbait lan-arlotan banaturik.

**Azterlanak eta Proiektuak:**
Patxi Sasigain
Arantza López de Munain
Arantza Unzurrunzaga
Leire Ozerin

**Prentsa eta Dokumentazioa:**
Maje Sáez
Begoña Etxebarria

**Administrazioa eta Zerbitzuak:**
Gabriel Muro

**Zuzendaritzako idazkaria:**
Arantza Miñambres

**Zerbitzu Orokorrak:**
Beatriz Cerezo
Aitor Crespo
AneTorres

# V

## Euskadiko EGAB-en Dokumentazio eta Prentsa Zerbitzua

# Euskadiko EGAB-en Dokumentazio eta Prentsa Zerbitzua

Dokumentazio eta Prentsa Zerbitzuak Dokumentazio Zentroa kudeatzen du. Zentro horrek dokumentazio-laguntza ematen die Batzordeko kideei eta langile teknikoei, euren lanak egiteko. Gainera, Prentsa Zerbitzuak argitalpenen edizioa eta Batzordearen komunikazio-ardatzak ere kudeatzen ditu, eta 2004az gero aktiboki parte hartzen du RTAren (Arku Atlantikoko Sarea) komunikazio-estrategian eta diseinu korporatiboan.



## KOMUNIKAZIO ZENTROA



### HEMEROTECA

Egunero-egunero prentsan agertutako gizarte eta lan arloko albiste nagusien bilduma, eta irrati eta telebistako albistegiak transkribatzen dituen beste bilduma bat banatzen dira posta elektronikoaren bidez.

## LIBURUTEGIA

2005. urtearen amaieran Batzordearen liburutegian zegoen dokumentu-funtsa **3.063** unitate fisikok osatzen zuten. Zenbateko horri legeriaren eta jurisprudentziaren buletinak eta erregistro automatizatu horretan sartzen ez diren bestelako liburuxka eta aldizkari sortak ere gehitu behar zaizkio.

## AGIRIEN BILAKETAK

Zerbitzu horrek agirien bilaketak eskaintzen dizkie Batzordeko kideei eta langile teknikoei, euren lanak egiteko.

## ARGITALPENAK



Batzordearen baitan onesten diren edukien (irizpenak, memoriak, txostenak) ondorengo ekoizpena Prentsa eta Dokumentazio Zentroaren lana da, bera arduratzen baita diseinua egiteaz, argitalpen guztiak Euskadiko EGABen erakunde-nortasunaren eskuliburuan jasotako ildo estetikoetara molda daitezen.

Halaber, testuen itzulpen, maketatze, zuzenketa, inprimaketa eta banaketa prozesuak koordinatzen dira. Argitalpenak posta-bidalketen eta web orriaren bidez banatzen dira.



Hona hemen 2005ean zehar argitaratu eta banatu diren lanak:

- 2004ko Jardueren Memoria. Edizio elebiduna, 1.000 ale.
- 2004ko Memoria Sozioekonomikoa. Gaztelaniazko edizioa, 1.500 ale. Euskarazko edizioa, 450 ale.
- Irizpen baten edizio elebiduna, 800 ale.
- Azterlana: Lana bilatzeko zailtasunak dituzten kolektiboak EAEn. Edizio elebiduna, 850 ale
- RTA NEWS. 2. zenbakia, frantsesez, ingelesez, gaztelaniaz eta portugesez argitaratua. 12.500 ale.
- RTAren azterlanak. Lau hizkuntzatan, 12.500 ale.

## EUSKADIKO EGAB ETA KOMUNIKABIDEAK

Batzordean prestatzen diren azterlan, irizpen eta memoriak, baita jendearen intereseko jarduerak ere (jardunaldiak, mintegiak, agerraldiak, beste erakunde batzuekiko topaketak...) hedabideei eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurune sozioekonomikoko iritzi-aitzindariei bidaltzen zaizkie.





Erabaki edo irizpenak direnean, hedabideetara bidaltzeko prentsa oharra prestatzen da. Eduki horiek guztiak Interneten daude, Euskadiko EGABen web orriko «Notas de Prensa- Prentsa Oharrak» atalean.

Zabaldu nahi diren edukien garrantziaren arabera, kazetariei deialdia egin ala ez erabakitzen da.

2005ean zehar 5 harreman izan genituen hedabideekin, prentsa oharrak eta deialdiak zenbatuta. Emandako hedapenaren jarraipena eginez, 2005ean, prentsa eta agentzietako albistetan, guztira 115 informazio argitaratu zirela ondorioztatzen da. Irrati eta telebistako 56 grabazio ere jaso ziren, gure Batzordearen ekimenen inguruan. Azkenik, prentsa idatzian 7 elkarrizketa egin zitzaizkion, hedabideek eskatuta, Batzordeko lehendakariari.

## PRENTSAURREKOAK 2005ean

**2005eko martxoak 9, Bilbo.**

Euskadiko EGABeko Prentsa Kabineteak lan-gosaria antolatu zuen, Batzordearen jardueren jarraipena egin ohi duten kazetariekin biltzeko. Bilera horretan, Euskadiko EGABeko lehendakari Antxon Lafontek erakunde horren ildo estrategikoen berri eman zien kazetariei, erakundeko arloak banan-banan hartuta.







**2005eko ekainak 2, Bilbo.**

Antxon Lafont Euskadiko EGABeko lehendakaria komunikabideen aurrean agertu zen kultura ekintzaileari eta enpresak sortzeari laguntzeko dekretu-proiektuari eta Arku Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Eragileen Sareak (RTA) onetsitako azterlanei buruzko informazioa emateko.

**2005eko irailak 21, Brusela.**

RTAren prentsaurrekoa Bruselan, bere azterlanen ondorioak aurkezteko. Komunikabideen aurrean RTAko lehendakari den eta Euskadiko EGABeko batzordekide aditu den Rafael Puntonet agertu zen.

**2005eko urriak 5, Bilbo.**

Prentsari Munduko Federazio Sindikalak (FSM) EGABera egin zuen bisitaren berri emateko prentsa-oharra.

**2005eko urriak 18, Bilbo.**

2004ko Memoria Sozioekonomikoaren edukiak aurkezten prentsaurrekoa. Bertan egon ziren Euskadiko EGABeko lehendakari den Antxon Lafont, Idazkari Nagusi den Javier Muñecas eta Azterlanen eta Proiektuen Arduradun den Arantza Unzurrunzaga.

## IRUDIEN ARTXIBATEGIA

Batzordeak izan dituen ekitaldi eta bilerarik garrantzitsuenen argazki digitalen artxibategia dauka. Argazki horiek aldizkari eta egunkariei eskaintzen zaizkie, tarteka, haien lana erraztearren.

## URTEKO PRENTSA-DOSIERRA

Kontseiluaren jarduerei buruz prentsan, irratian eta telebistan emandako informazio guztiak biltzen ditu. Informazio horien edukiarekin, EGABek komunikabideetan egindako agerraldien dosier kronologikoa egiten da urtero.

# RTAren KOMUNIKAZIOA



2005ean EUSKADIKO EGABek aktiboki parte hartu zuen RTAren (ekonomi eta gizarte eragileen Arku Atlantikoko Sarea) komunikazio-estrategian. Aurten, Euskadiko Maje Saezek, Akitaniako Muriel Cultotek eta Maite Cosnard koordinatzaileak osatzen duten sareko Komunikazio Batzordeak RTAk bere azterlanak publikoki aurkezteko Bruselan egin zuen ekitaldiko (2005eko irailak 21) komunikazio eta prestakuntza guztiak garatu zituen.

Euskadiko eta Akitaniako EGABek modu koordinatuan lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartu zuten, hedatu beharreko mezuak garatzeko eta RTAren Komunikazio Estrategia garatzeko xedez.

## Azterlanak aurkezteko jardunaldia. 2005eko irailaren 21ean, Bruselan.

RTAren prentsaurrekoa Bruselan, bere azterlanen ondorioak aurkezteko. Komunikabideen aurrean agertu da RTAko lehendakari eta Euskadiko EGABeko kide aditu den Rafael Puntonet.

## RTAren azterlanen argitalpena

Diseinua (Euskadik koordinatua) aho batez onetsi zen Komunikazio Batzordean. Formatuari dagokionez, proposamenak ale bakarrean bildu zituen lau hizkuntzatara itzulitako hiru azterlan, CD euskarrian. Guztira 6.500 ale argitaratu ziren.




## Web orrialdea: htpp/www. rta/atn.org

RTAren jarduerak sarearen web orrian, htpp / www.rta / atn.org, ezagutzera ematen dira.



## RTA News

RTA News albiste-buletinaren bigarren zenbakia 2005eko uztailean argitaratu eta banatu zen. Urtean behin argitaratzen da, 12.500 ale argitaraldi bakoitzean. Sareko bazkideak arduratzen dira zein bere eskualdean banatzeaz. Gainera, Europako erakunde eta iritzi-eragile guztiei bidaltzen zaie. Aldizkariaren bertsio elektronikoa eskura dago web orrian.



# VI

# Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari aplika dakiokeen legedia

# Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari aplika dakiokeen legedia



3/1979 LEGE ORGANIKOA, 1979ko abenduaren 18koa, Euskadiko Autonomia Estatutuaren gainekoa (BOE 306 zk., 1979-12-22koa) (EHAO 32 zk., 1980-12-01ekoa).

9/1997 LEGEA, ekainaren 27koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen gainekoa (EHAO 141 zk., 1997-07-24koa).

ERABAKIA, osoko bilkurarena, 1997ko abenduaren 18koa, zeinetan Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduaren arautegia onesten den (EHAO 10. zk., 1998-01-16koa).

2/2000 DEKRETUA, otsailaren 25ekoa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko a), b) eta c) taldeetako kideak kargutik kendu eta berriak izendatzen diren (EHAO 58 zk., 2000-03-23koa).

4/2000 DEKRETUA, apirilaren 19koa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Adituen Taldeko kideak izendatzen diren (EHAO 87. zk., 2000-05-10ekoa).

6/2000 DEKRETUA, ekainaren 14koa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Lehendakaria izendatzen den (EHAO 117 zk., 2000-06-21ekoa).

7/2000 DEKRETUA, abuztuaren 2koa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kideak berritzen diren (EHAO 178 zk.,2000-09-15ekoa).

# ERANSKIN BAKARRA:
# 2005eko ikuskaritza-txostena

GÓMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L., inscrita al número 23 en el Registro Especial del Instituto de Censores Jurados de Cuentas de España y al número S0204 en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas, con estudio en Bilbao, calle Diputación nº 1, emite el siguiente:

## INFORME DE AUDITORÍA

1. Hemos auditado la liquidación del Presupuesto de la entidad CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA, correspondiente al ejercicio 2005, así como el balance de situación y la cuenta de pérdidas y ganancias del citado Organismo, cerrado al 31 de diciembre de 2005. Nuestra actuación tiene por objeto expresar una opinión sobre los citados estados financieros, basada en el trabajo realizado de acuerdo con las normas de auditoría generalmente aceptadas, que requieren el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de los mismos y la evaluación de su presentación, de los principios contables aplicados y de las estimaciones realizadas.

2. Presentamos, a efectos comparativos, con cada una de las partidas de la liquidación del presupuesto, del balance de situación y de la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio 2005, las correspondientes al ejercicio anterior. Nuestra opinión se refiere exclusivamente a los estados financieros del ejercicio 2005. Con fecha 23 de marzo de 2005 emitimos nuestro informe de auditoría sobre los mencionados estados financieros del ejercicio 2004, en el que expresamos una opinión favorable.

3. En nuestra opinión, la liquidación del Presupuesto del ejercicio 2005 adjunta presenta adecuadamente, según criterios presupuestarios, la actividad económica de la entidad CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA durante el citado ejercicio, y el balance de situación y la cuenta de pérdidas y ganancias adjuntos, correspondiente al ejercicio 2005, reflejan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y la situación financiera de dicha entidad al 31 de diciembre de 2005, y de los resultados de sus operaciones y de los recursos obtenidos y aplicados, de conformidad con principios y normas contables generalmente aceptados, que guardan uniformidad con los aplicados en el ejercicio anterior.

GÓMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L.

Fdo.: Javier Angulo Gómez

INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA

Miembro ejerciente:

GOMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L.

Año 2006 Nº PV-001608

COPIA GRATUITA

Este informe está sujeto a la tasa aplicable establecida en la Ley 44/2002 de 22 de noviembre.

Bilbao, 23 de marzo de 2006